

Jugoslavia Berriko krisia gero eta larriagoa ari da bihurtzen

Cosic Lehendakaritzatik kendu ondoren zatiketaren arriskua areagotu egin da

Jugoslavia Berria krisiak jota dago. Nazioarteko enbargoak eta zigorrek eragindako tentsio giroari barne politikako gatazkak gehitu behar zaizkio orain. Gatazka hauek Montenegro eta Serbiak osatzen duten Jugoslavia «berria» banaraziko dutela iragarri dute analistek.

BELGRAD

Dobrica Cosic lehendakaria kargutik kendu dute Konstituzioa bortxatu duela arrazoituta, Zivota Panic Armadako burua soldaduei komuneko papera garestiegi saltzeagatik salatu dute eta Vuk Draskovic oposizioako burua bi hilabeterako espetxeratu dute iragan astearteko istiluetan «ordena publikoa arriskuan» jarri zuela egotzita.

Vojislav Sesljek zuzentzen duen Alderdi Erradikalaren eta Slobodan Milosevicen neokomunisten botoei eskerrak kendu ahal izan zuten Cosic Jugoslaviako Lehendakaritzatik. Baina 600.000 biztanle besterik ez dituen Montenegroko ordezkariak Cosic babestea erabaki zuten.

Emaizta honek itxuraz dirudiena baino garrantzi handiagoa izan lezake, bi errepublikaren arteko zatiketa gero eta nabariagoa dela agerian geratu baita bozketaren ostean. Beti ez dira bat etorri Montenegro eta Serbia. Barne krisia areagotzen ari den neurrian ordea, bien arteko banaketa indartzen ari da, nazioarteko presioek eraginda hein handi batean.

Alemaniarrek azken agurra eman zieten errefuxiatu turkiarrei

KOLONIA

Dozenaka mila alemaniarrek azken agurra eman zieten atzo Kolonian, joan zen larunbatean eraso xenofobo baten ondorioz Solingen hirian erreta hil ziren bost errefuxiatu turkiarrei. Solingenen hasitako hiletetan milaka pertsona bildu ziren udal-etxetik errefuxiatu turkiarren etxerainoko prozesioan, eta Kolonian Ditib meskitako elizkizunak entzuten bertako futbol zelaia bete zuten jatorri turkiarreko biztanleak eta alemaniarrek.

Alemaniarren Gobernuak buruzagi nagusiak bertan izan ziren, Turkiako Legebiltzarreko lehendakariordearekin batera. Besteak beste, Richard von Weizsaecker Alemaniako lehendakari federalak, Klaus Kinkel Atzerri minis-



Sarajevoko zenbait biztanle serbiarrek jaurtikitako bonbetatik babestu nahian.

REUTER

Eslovenia, Mazedonia, Kroazia eta Bosniak Jugoslaviako errepublika izateari utzi ostean, oraindik ere desintegrazio bidea amaiturik ez dela agertu dute zenbait analistak. Datorren negua garrantzi handikoa izango da Jugoslavia berriaren etorkizunak nondik joko duen ikusteko.

Izan ere, ez dirudi Montenegro negua petroliorik gabe igarotzeko prest dagoenik. Errepublika hau gero eta gehiago aldentu da serbiarren politikatik, eta hauek ez bezala, Bosniako serbiarrei laguntza eman diezaieten eragozteko mugak zainduko dituzten behatzaileak zabaltzeko baimena eman du.

Baina serbiarrei behar-beha-

riezkoa zaie Montenegrok Jugoslaviako kide izaten jarraitzea, hain beharrezkoa duten itsasorako irteerarik gabe geratuko lirateke eta.

**GERRA
EZ DA
ETEN**

Serbian barne krisia areagotzen ari den bitartean, egoera kritikoan jarraitzen dute Bosnian. Sarajevorako aire zubi humanitarioak etenda jarraitzen du eta indar serbiarrek Gorazderi eraso egiten jarraitu zuten atzo ere.

«Kasurik onenean, aire zubia ostiralean irekiko da», adierazi zuen atzo Tony Lend Nazio Batuetako Errefuxiatuentzako Komisariatu Nagusiko (UNHCR) bozeramaileak, atzo Bosnia irra-

tiak zabaldu zuenez.

Asteazkenean moztu behar izan zuten Bosniako hiribururako aire zubia, Sarajevo inguratzen duten mendisketatik jaurtitako tiroek EEBBetako hegazkin bat harrapatu baitzuten. Ezbeharra bestelako kalterik eragin ez zuen arren, misioan parte hartzen duten herrialdeek hegaldiak behin-behineko bertan behera uztea erabaki zuten.

Bitartean, Sarajevotik 80 kilometro ekialdera, Gorazden, aurrera jarraitzen du serbiarren erasoak. Irrati musulmanak zabaldu zuenez, NBek babesgune izendatutako herriaren aurkako kanonikadek ez zuten etenik izan atzo.



Hildako hiru haurren aita negarrez beren alaben zerraldoen ondoan. AP

oihuak egin zituzten egoera honen erantzule nagusi direla uste baitute, arrazakeria eta xenofobiaren gorakada gerarazten ez dutelako jakin eta azken batean, erasotzaileak zigortu beharrean biktimak direlako kaltetuenak, erasoak jasateaz gain, errefuxiatu

babesa jasotzeko neurriak gogortu dituelako Bonnek. Kolonian aparteko istilurik izan ez bazen ere, Alemaniako beste zenbait tokitan enfrontamenduak izan ziren polizien eta elkartasuna adierazten zuten manifestarien artean.

Batasun nazionala iragarri dute Kanputxearako

PHNOM PENH

Norodom Sihanuk printzeak bera exekutiboko buruzagi eta Kanputxeako bi alderdi nagusietako buruzagiak lehen ministrorde izango dituen batasun nazionalako gobernua iragarri zuen atzo. Komunikatu baten bidez, Norodom Sihanukek «Kanputxeako Estatuko Gobernuaren» desegitea ere iragarri zuen, orain arte Hun Sen lehen ministroak zuzendu duen erregimen vietnamzalearena hain zuzen.

Estatuburuaren zereginak ere bere egingo dituela azaldu zuen printzeak, Ministroen Kontseiluko lehendakari izango da bi lehen ministrorde izango dituen Gobernuan. Gobernu-buruordeak Norodom Ranarid printzea eta Hun Sen izango dira, Norodom Sihanuken aldeko Kanputxea Independente, Neutral, Bakezale eta Kooperatzaileako Fronte Bateratuko (Funcinpec) eta Kanputxeako Herriaren Alderdiko (komunista ohia) buruzagiak hain zuzen. Bere komunikatuan, Norodom Sihanukek adiskidetzeko nazionalerako deia egin zien alderdi eta talde politiko guztiei, baita Khmer Gorriak gerrilari taldeari ere. Emaizta ofizialak oraindik argitara eman ez badira ere, Sihanuken erregetza aldarrikatzen duen Funcinpec alderdiak lehenengo postuari eusten dio.

Sizilia: biktima ugari birfindegi bateko leherketan

MILAZZO

Gutxienez bost pertsona hil ziren eta dozena inguru zauritu Siziliako Milazzo herrian dagoen birfindegi batean gertatu zen leherketaren ondorioz. Biktimak Agip petrolio enpresa estataleko birfindegi nagusia den horretako langileak dira, bertako iturriek adierazi zuten. Agip enpresako bozeramaileak emandako bertsioaren arabera, leherketa birfindegiko labe batean piztu zen sutearen ondorioz gertatu zen, berau azkar hedatu eta oliobidera iritsi zenean hain zuzen. Zaurituen artean batzuk larri daudela adierazi zuten iturriek baina hiltzeko arriskurik ez dutela gaineratu.